

Goierri tarra

337. zenbakia 2008ko martxoak 7

Jose Ramon Eizmendi

1. MAILAKO REALA HELBURU



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net





berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Endika Igartzabal

Udaberria

Negua nahiko lehorra doa jakin badakigu klaro kitaniebesa paroan edo aparkaturikan dago nere ustetan eguraldia zoratu zaigu zeharo udaberria iritsi zaigu inoiz baino lehenago.

Euria tajuz ez du egiten lanbro-langar, euri flako ta horren ordez hegoazedun egun eguzkitsu franko zuhaitzak ere mugitu dira hau sumatu dutelako hosto berriak irten zaizkie zaharrak erortzerako.

Doinua: "Anai-arrebak hementxe nator"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Ion Telleria.
5. **Ingurugiro txokoa:** Txango geologikoa Beasaindik.
6. **Euskara txukuntzen:** Denetik (VIII)
7. **Aholkua:** Ahoko minbizia.
8. **Erreportajea:** Amuarrainak gutxitzen ari direla eta, neurri murriztaileak.
12. **Elkarrizketa:** Jose Ramon Eizmendi Realeko entrenatzailea.
17. **Mundutarrak Goierriin:** Etorkinekin harremana izateko hiztegitxoak.
20. **Aste Santua Seguran**
22. **Elkarrizketa:** Goierriko kultur zirkuitua.
26. **Non zer.**
29. **Iragarki laburrak.**
30. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Ion Telleria

ETA omen da arazoa, baina azken hilabeteetako ia 300 espetxeratueta-tik zenbait ziren ETakoak?

M-10: Ni ERE Euskadin bizi naiz

Demokrazia erraza dugu gurean, erraza bai, aldian-aldian gustukoen dugun publizitate mezuari botoa eman eta kito! Eta orain tokatzen da, hauteskundeak baitira zazpi euskal lurraldeetan: Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan herriko etxeetako (udaletxeak) eta kantoietako (Kontseilu Orokorrerako) hauteskundeak dituzte, alderdi abertzaleak elkarrekin doaz Euskal Herria BAI koalizioan (PNV ezik, hau eskuin frantsesarekin) inoiz ez bezalako abertzaleen ordezkariak lortzera; Espainiako hauteskundeetarako elkarrekin doaz Nafarroan Demokraziak parte hartzen utzi dien alderdi abertzaleak (*vasquistak?*); bakoitza bere aldetik EAEn. Herri gisa aritzeko garaiak behar lukete baina...

Izan ere, inoiz ez bezalako adostasun batekin iritsi gara euskal herritarrek 2008 urtera. Negoziazio prozesuak porrot egin bazuen ere hiru puntutan gehienon batasuna eragin du: herri honek bere etorkizuna modu askean **erabakitzeko eskubidea** duela, **zazpi lurraldez osaturiko herria** dela gurea eta gatazka konpontzeko **modua** elkarrizketa eta akordioa direla.

Baina negoziazio prozesuak porrot eginda lasterketa bizia hasi zen parte hartu zuten sektoreen artean, lasterketaren amaierara bakoitza iristen den indarraren arabera bi helmuga posible dituen lasterketa: edo Espainiako Konstituzioaren baitako antolaketa berria ematen da (PSOE-PNV hitzarmena), edo edozein proiektu politiko gauzagarri bilakatzen duen marko berria lortzen da (elkarrizketa eta akordioa). PSOE Espainiaren Batasun sakrosantua zalantzan jarriko ez duen posizio bila dabil, PNV estatuarekin hitzarmen berria lortu asmoz eta ezker abertzalea marko demokratiko bat eraikitzeko asmoarekin.

Eta ikusi dugu bakoitzak bere tresnak nola eta zertarako erabili dituen. Adibidez, ikusgarria izan da azken hilabeteetan PSOEek nola erabili duen errepresioa ezker

abertzalearen inizatiba politiko oro gertatzeko. ETA omen da arazoa, baina azken hilabeteetako ia 300 espetxeratueta-tik zenbat ziren ETakoak? Ezin da ulertu ekinbide armatua bada arazo nagusia, errepresioa ekinbide politikoaren aurkakoa izatea, ezin da ulertu errepresioaren funtzio politiko aitortu ezean.

Baina orain hauteskundeak dira eta hori dena ahaztu egin behar da. Orain, dena mezu politikak diren honetan... zergatik doa PNV iparraldean eskuin frantsesarekin? Zergatik doa EAetik Madrilera Lakua-ko botere-gunea indartzera? Zergatik dio Nafarroan gobernu aldaketa dela konponbidea? Zein baldintza errepikatzen da hiru errealitate administratibotan?

Boterea, eta soilik boterea. Boterea dute helburu hiruetan, ez dago beste puntu komunik.

Baina orain hauteskundeak dira eta hori dena ahaztu egin behar da. Orain denek defendatzen dute etxebizitzarako eskubidea, Abiadura Handiko Trenak dena du ona eta hemen ez dago gatazkarik. Baina martxoaren 10etik aurrera "errekeerre ezkertiarrek" berriz etxebizitza bermatzen ez duen politika garatuko dute, karpainan elkarri ikaragarrikoak esaten aritu direnak eskutik hartuta hitzartuko dituzte aurrekontuak...

Baina gu ere Euskal Herrian bizi gara eta ikusiko dugu gurean 800 euskal herritar faltako direla Estatueta-ko espetxeetan direlako (Aupa Asier, Ekain eta konpainia!), euskaltzaleetan euskaltzaleenak berriz esango du Egunkariaren epaiketaren atarian Berria egunkariak ez duela ETA kritikatzeko, bitartean, Euskarak ez du jakingo noiz arte biziko den... herri honen etorkizunak bi estatuen legediaren kartzelapeko isiltasunean giltzapetuta jarraituko duelako.


Martxoaren 10etik aurrera Euskal Herrian bizitzen jarraitu nahiko nuke nik ere, baina Euskal Herrian eta diruaren eta estatuen morrontzarik gabeko Euskal Herrian; zuk non bizi nahi duzu?



kutxa

Txango geologikoa Beasaindik

Nork esan du arrokkak ikusteko mendira joan behar dugunik? Oraingo honetan, Landarlanek Beasainen paseo bat emanez herriko denda zein atarrietako horma eta zorueta aurki daitezkeen arrokkak ikusi eta ezagutzera gonbidatzen zaituzte datorren martxoaren 9an. Hiru arroka talde nagusietan zehar egingo dugu Beasaingo ibilbidea: sedimentarioak, metamorfikoak eta igneoak.



Arroka sedimentarioak

Bidaia geologiko honen abiapuntua Beasaingo elizan ezarriko dugu: eliza ia bere osotasunean hareaharri eratuak dira. Hareharriak arroka sedimentario siliziklastikoaren barnean sailkatzen dira eta gainazalean sortzen dira. Hareharri hauek Erdi Kreatazo adinekoak dira eta Beasain eta inguruetan oso ugariak dira, lutitekin batera. Itsaso sakon batean metatutako hareaz daude osatuak. Hala ere, talde honen barruan karbonatozko arrokkak ere badaude. Kareharriak gehienetan ingurune tropikaletan eratuak dira: arrezifeetan, mareak eragiten duen alderdian, hondartzetan, etab... Beasaingo horma apaingarri ugarietan arrezifeetako fosilak ikusi daitezke: errudistak, bibalbioak, koralak, oolitoak, etab...

Arroka metamorfikoak

Arroka metamorfikoak sedimentarioak lurperatzearen ondorioz sortzen dira, az-

ken hauen eraldaketaren ondorioz. Arroka sedimentario siliziklastiko zein karbonatozkoak lurperatzean, presio eta temperatura handietan hauek dituzten mineralak ezegonkor bihurtzen dira, eta baldintza zehatz horietan egonkor diren beste mineral batzuk emanez eraldatzen dira. Talde honen ezaugarri bereizgarri dira eskistositatea eta bandedatu metamorfikoak. Ibilaldian zehar bizpahiru adibide ikusteko aukera izango dugu.

Arroka igneoak

Talde honen barruan sailkatzen diren arroken jatorria lur barnean dago. Arroka metamorfikoak are gehiago sakoneratzean, lur barneko presio eta temperatura oso altuen eraginez urtu egiten dira magma bihurtuz. Magma hau izango da arroka igneoaren jatorria. Bi azpialde

nagusietan sailkatzen dira arroka igneoak. Plutonikoak lur barnean magma astiro hoztearen ondorioz sortutako arrokkak dira, granitoak adibidez. Hauen mineral kristalen tamaina handia izaten da (feldespatoa, kuartzoa, mikak, etab...). Gainera, jatorrizko magma konposizioaren arabera, mineral ezberdinak sortuko dira, arroka bakoitzari kolore ezberdina emanez. Bestalde, magma lurrazal gainazalera irten eta laba moduan azkar hozten denean, arroka bolkanikoak sortzen dituzte. Azken hauen ehundura eta kolore ilunagatik ez dira gehiegi erabiltzen apaingarri gisa. Arroka plutonikoak apaingarri gisa horma zein etxe sukaldetan oso erabiliak dira. Guk ere hauetako adibide ugari ikusiko ditugu, bai hormetan, baita espaloietan ere.

Arantxa Bodego

JAKIN BEHARREKOAK

Gasteiz transgenikoetik libre. Urtarrilak 25ean Gasteiz landaketa transgenikoetik libre izateko deklarazioa onartu zuen bertako Udalak.

Zoriontasunaren indizekin eginiko mapa. Bakoitzak bere zoriontasuna neurtzeko galdera sorta aurki dezakegu web honetan www.happyplanetindex.org gizartearen ongizatea neurtzeko betiko indize ekonomikoek gain beste neurriak proposatzen dira: urrats ekologikoa, ingurumena, giza garapena...

Ozeanoen baliabideak sortzeko ahalmena murrizten ari da kutsadura, gehiegizko arrantza eta aldaketa klimatikoa direla eta. Poloetatik gertu dauden zati bakan batzuek bakarrik daude gizakiaren eraginetik kanpo, "Science" aldizkarian azaltzen den maparen arabera.

Urtero 20-50 milioi tona zabor elektronikoa sortzen dugu. Hondakin hauen gehiena Txinako, India edo Nigeriako hirizabortegetan pilatzen da kudeaketa desegokia delako. Zabor honek metal astun ugari ditu (beruna, kadmioa, merkurioa...).

Petroleo isurketa Amazonasen. Repsol petrolerak 100 kupela petroleo isuri ditu istripu baten ondorioz. Yasuni parkearen inguruan gertatu da, Ekuadorren. Yasuni munduko bioaniztasun handiena duen lurraldea da.

Denetik (VIII)

Maizpide
euskaltegia

Gaur ere "mazedonia"!

Non eta nondik

Erne, lagunok! Ez dakit konturatuko zineten, baina... gaztelaniaren eraginez, non kasua erabili beharrean, nondik erabiltzen dugu behar baino gehiagotan!

- ✗ Atzo mendit**ik** ibili ginen eta leber eginda bukatu genuen (oker).
- ✓ Atzo mend**ian** ibili ginen eta leber eginda bukatu genuen (zuzen).
- ✗ Noam Chomsky hizkuntzalari eta idazle ospetsua Euskal Herrit**ik** dabil, batera eta bestera (oker).
- ✓ Noam Chomsky hizkuntzalari eta idazle ospetsua Euskal Herri**an** dabil, batera eta bestera (zuzen).
- ✗ Zuen irakasle berria korridoret**ik** (pasillot**ik**) ikusi dugu duela gutxi (oker).
- ✓ Zuen irakasle berria korridore**an** (pasillo**an**) ikusi dugu duela gutxi (zuzen).

"Hor nonbait" bezalakoak ere erabiliko ditugu:

- ✗ Non da Joxantonio, Demetrio? – Ez zekinat, Bixenta! Hort**ik** egongo dun! (oker).
- ✓ Non da Joxantonio, Demetrio? – Ez zekinat, Bixenta! **bor nonbait** ibiliko dun! (zuzen).
- ✗ Utzi ezak ziurtagiria hort**ik**! (oker).
- ✓ Utzi ezak ziurtagiria **bor nonbait**! (zuzen).

Telefonoz ari garenean ere...

- ✗ Gabon, Juani, gizona hort**ik** al dabil? (oker).
- ✓ Gabon, Juani, gizona **bor al da / etxean al da?** (zuzen).

Hi, Ekaitz, gaur baietz kopiatu ehun esaldiak hik baino lehen!



Horrela irabaziko duk berriz ere, Eñaut! Korridorean korrika etorri haiz ni baino lehenago hastearren!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Egunon, Prantxika, Marijo naun! Hortik al dabil zuen gizon hori? Hala bada, esaion lehenbailehen jartzeko!
2. Hi, Koxme, utzi ezak hortik butano-botila!
3. Gaur ez du porrotik jaso etxeko taldeak.
4. Realeko Eizmendi entrenatzaileak, joan den igandean eman zuen prentsurrekoan, ez zuen esan taldea mailaz igotzeko partida guztiak irabaztea hil ala bizikoa zela; gaurkoan, berriz, igoko badira, derrigorrezkoa dela onartu du.
5. Getafek irabazi egin zion Santanderko Racing-i Madrilen jokaturiko partidari.

OHARRA: lehenengoan, hor al da behar du; bigarrenean, utzi ezak hor nonbait; hirugarrenean, galdu; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.

Azken urte hauetan minbizia kasuak gehitzen ari dira, urteko heriotzen %23 direlarik. Ahoko minbiziak %3ko intzidentzia du eta gorputz guztiko hilgarrienetariko bat izan daiteke. Hala ere, ez da gehiegi larritu behar, kasu gehienak diagnostiko eta tratamendu apropos batekin senda baitaitezke.

Intzidentzia

Aho barruan luzaroan lesioaren bat duten 40 urtetik gorako gizonetan ematen dira kasu gehienak, baina baita ere, jarraian aipatuko ditugun faktoreekin zer ikusia dutenetan.

Faktore mingarriak

Kalte egin eta minbiziaren formazioa areagotzen duten

faktoreak ugariak dira, hala nola, tabakoa, alkohola, ahoko garbitasun desegokia, hortz edota protesiek sortzen dituzten urratuak, aho barruko berotasuna (janari oso beroak, zigarroa ezpain tartean mantentzea etab...), protesiek sortutako presioa, elikadura desegokia eta infezioak (birusak, ondoak etab...)

Leku ohikoena

Orokorrean ahoko edozein tokitan agertu daiteke, mingaina delarik ohikoena, hala ere, ezpainetan, entzietan, aho sapaian eta matraietan ere agertu ohi da.

Nola jakin minbizia dela?

Minbizia dagoela adierazten duten sintomarik nabarmenak

ondorengo hauek dira:

- ✓ Hamabost egun baino gehiagoan sendatzen ez diren zauriak.
- ✓ Gogortasun eta koskorak nabaritzea.
- ✓ Txuri, gorri edo beltz koloreko mantxak.
- ✓ Odol jario ez ohikoa.
- ✓ Ahoko mina, lehortasuna.
- ✓ Irentsi, jan edo hitz egiteko zailtasuna.
- ✓ Infekzio kronikoak (ondoa, VIH...).

Garrantzitsua da hilabetean behin norberak bere ahoa aztertzea eta lehen aipaturiko sintometako bat antzemanaz gero dentistarekin kontsultatzea. Honela, minbizia izan daitekeen lesioaren bat badago, denboraz senda daiteke.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain



Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

IÑAKI ARIN aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Martxoaren 23an irekiko da arrantza denboraldia. Gero eta amuarrain gutxiago dagoela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat neurri murriztaile hartu ditu. Besteak beste, egunean, arrantzale bakoitzak, hiru amuarrain baino gehiago ezingo ditu harrapatu. Lareo, Arriaran eta Arrantza Eskolara bideratu nahi dute arrantza. Zaldibiako arrantzaleak arazo horretaz jakitun, arrantzaleen kontzientzia aldatzen saiatzearekin batera, Amundarain erreka berreskuratzeko hainbat ekintza planteatu dituzte Foru Aldundian.



Gero eta amuarrain gutxiago

Hainbat neurri murriztaile hartu ditu aurten Foru Aldundiak



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA



ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

Iñigo Mendiola, Foru Aldundiko Basa animalien zuzendaria:

“Egunean 3 amuarrain arrantzatu ahal izango dira gehienez”

Nafarroatik etorri ziren lehenengo hotsak: amuarrain arrantza debekatu egin dutela Ipar isurialdeko errekarik oparoenetan, gero eta amuarrain gutxiago dagoela argudiatuz. Gipuzkoan ere hainbat neurri hartuko ditu Foru Aldundiak, Nafarroan bezalaxe, Gipuzkoan, amuarrain kopurua ere beheraka baitoa.

Iñigo Mendiola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa animalien zuzendariak GOIERRITARRA aldizkariari aurrreratu dionez, Aldundiak 15 urte daramatza Gipuzkoako erreken egoera aztertzen eta datuek diotenez, amuarrain kopurua beherantz doa. Beherakadaren arrazoizat, faktore bat baino gehiago egon daitekeela dio, “ezin da zehaztu, aztertzen ari gara. Ez da Gipuzkoako kontua bakarrik, Nafarroan ere joera berdina dago. Elkarlanean, datuak eta arrazoiak aztertzen ari d gara. Proiektu edo ikerketa bat bideratu nahi dugu elkarlanean”.

Neurriak

Beherakada honen aurrean, neurriak hartuko ditu Foru Aldundiak. Batetik, arrantza debekua, Nafarroako mugetako erreketan ezarriko da. Goierrin neurri horrek ez du inolako eraginik izango beraz. Bestetik, egunean, 3 amuarrain harrapatu ahal izango dira arrantzaleko. Orain arte, 5 amuarrainetan zegoen eguneko muga.

Martxoaren 23an irekiko da arrantza denboraldia eta inguruko herrietan, neurriak egoki betetzen direla ziurtatzeko, zaintza handia egongo dela adierazi du Mendiolak.



Heriotzik gabeko arrantza ere bultzatu nahi du Foru Aldundiak, horretarako lekuak egokituz.

Hil gabeko arrantza ere bultzatu nahi du Foru Aldundiak, horretarako lekuak egokituz.

Asko jaitsi bada ere, Gipuzkoan 6.000 arrantza baimen daude. Neurri guztioekin arrantzaleak sensibilizatu nahi dituzte, amuarrainen beherakada begibistakoa baita. Era horretan, Iñigo Mendiolak, arrantzaleei honako gomendio eman nahi izan die: “gelditzen dena zaintzeko, errespetu handiarekin arrantza egiteko”.

Lareon eta Arriaranen

Erreketako amuarrain kopurua hazten laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, amuarrainak botako ditu hainbat erreka zatitan eta urtegietan. “Adibidez, Lareon eta Arriaranen ere hala egiten dugu, eta Beasaingo Aitz-zorrotz elkarteak banatzen dituzten paseen bidez,

arrantza hara bideratzen dugu, arrantza kirolean aritzeko, errekek babestuz”, dio Mendiolak. Zaldibiako Arrantza Eskola ere aukeran hor dagoela gogoratu du Mendiolak, horretarako, Zaldibiako Gaztelu elkartekoen jarri behar da harremantetan.

Birpopulaketak

Azkenik, erreketako birpopulaketak nola egiten dituzten jakin nahi izan dugu: “Diputazioak, arrain gutxi dagoen erreka zatietan, han-

di egindako amuarrainak botatzen ditu, arrantzaleak leku horietara bideratu eta naturalki birpoblazioa egiten den lekuak babestuz. Lehen, elkarteek, 4-6 zentimetroko amuarrain kumeak botatzen zituzten baina emaitzak ez dira onak izan. Bide horrek ez dio birpopulazioari ezertan laguntzen. Eta taktikaz aldatu genuen: jendeak arrantzatu nahi badi, arrantzatu daitezkeen arrainak bota eta errekarri atsedena eman”, azpimarratu du Iñigo Mendiolak.

Arrantzaleei gomendio bat: gelditzen dena zaintzeko, errespetu handiarekin egiteko arrantza.

Iraeta eta Armendariz Zaldibiako Gaztelu elkartekoak:

“Errekak berreskuratzen parte hartu nahi dugu”

Zaldibiarrak aspalditik dute amuarrainak gutxitzen ari direnan kezka eta 2007ko irailan, Iñigo Mendiola Diputazioko teknikariari idatzi bat bidali zioten, Amundarain erreka berreskuratzeko egin beharko liratekeen ekintzen berri eman eta horiek burutzeko baimena eskatuz.

Gaztelu elkarteko Juanjo Armendarizek eta Jon Antton Iraetak diotenez, “amuarrain gutxiago dagoela nabarmena da, zergatik den? Arrazoi asko egon litezke. Beste urteetan baino ur gutxiago datorrelako; gartzak eta horrelako hegazti arrainjale asko dabil-tza, lehen ez zen horrelakorik ikusten... Nik uste dut arrantzagatik bakarrik ez dela amuarraina gutxitu. Garai batean, gure osabak-eta, joaten ziren aldiko 30 amuarrain-eta ekartzen zituzten; kantitateagatik ez zen, hurrengo egunean joan eta berdin izaten baitzen”.

Uraren kalitateak ere zerikusirik izan dezakeela uste dute. “Berez uretan sortzen ziren mozorroak beharbada ez dira lehen bezala sortzen, eta horixe da amuarrainaren janaria”. Mendian botatzen diren abonoek ere eraginik izan dezaketelakoan daude.

Birpopulaketak

Duela 10 bat urtera arte, arrantza elkarteek, amuarrain kumeak sortu eta askatu egiten zituzten. Baina Foru Aldundiak, debekatu egin zuen ekintza hau, emaitzak onak ez zirela arrazoituta. “Guk arrain-haztegi bat prestatuta daukagu, Zaldibiako amuarrainen umeak ateratzeko.



Juanjo Armendariz eta Jon Antton Iraeta

Amuarrainen arrautzak aterra eta arrautzetatik kumeak ateratzeko momentu hori, momentu kritikoa izaten da, ura igotzen delako, edozein kutsadura delako... Guk lagundu egiten genien eta jaio eta bi zentimetroak, hirura iristerako, askatu egiten genituen. Askatu akatuko ziren baina geratu ere bai. Neurri txikian botaz gero, dezente ateratzen zen. Bertako amuarraina zen gainera, ez kanpotik ekarritakoa. Kanpoko amuarrainak, hemengoak desplazatu egiten du. Baina gaur egun horretan ez dute uzten Diputazioak. Errekan egin litekeen guztia debekatuta daukagu”. Gaztelu elkartekoek, berriz ere amuarrain kumeak askatzen uzteko eskatzen die Foru Aldundiari. “Instalazioak badauzkagu alebinak sortzeko. CAFeko zentraletik aparte, beste bi depositu ere baditugu eta horiek erabil daitezke arrain-haztegi bezala... Nahi izatea da”, azpimarratu dute zaldibiarrak.

“Arrainkumeak ateratzen ez direnaren teoria ez

dakit zenbateraino den egia. Tolosako arrantzaleek urte askotan lan asko egin dute; eta Tolosa herria, dena bete zen amuarrainez. Gero berriz ere kutsatu zen erreka baina urte guztietan erreka bete egin zuten. Ez dakit zein arrazoi dagoen bide hori aurrera ez eramateko, ez zait iruditzen hori aitzakia denik”, dio Juanjo Armendarizek.

Arrantzaleen kontzientzia

Jon Antton Iraetak adierazi duenez, “arrantza kontu gehiagorekin eginda, erreka zerbait hobetu litezke. Arrantza debekatzeko zatiak jarri, hil gabeko arrantza egin liteke... horrela pixka bat hobetuko du, eta guk ere pixka bat kontzientziazten joan beharko dugu, ahal den bitartean, errekarri ahalik eta kalterik gutxiene egin beharko zaiola. Baina ez dakit hori bakarrik nahikoa izango den, hor beste faktore batzuk ere badaude”. Dena den, “debekatutako lekuetan eta hil gabeko arrantza arautzen diren zatiak jartzen dira baina

zaintzarik ez da egoten batiere”, salatu du zaldibiarrak. “Errekak berreskuratu egin behar dira, guk arrantzaleok gure partetik zerbait jarri beharko dugu, baina guk bakarrik jarrita ez da nahikoa izango, gauza gehiago egin beharko dira. Zaldibiako errekan aspaldian behintzat, aurrerapausorik ez dugu egiten eta atzeraka asko”. Errekak itxiz proba egitearen aldekoa da Juanjo Armendariz.

Arrantza Eskola

Zaldibian, Arrantza Eskola ere badute, “umeen artean zaletasuna sortzeko dago Arrantza Eskola. Ume bat errekarra bidalita, egon zaitez seguru, han ez duela ezertxo ere harrapatuko. Arrantza Eskolara joanda ikasteko ere ez dago gaizki, afizioa sortzeko ondo dago”. Gaztelu elkartetik bideratzen da Arrantza Eskolako martxa. Iaz bi ikastaro eta 14 urtez azpikoentzako Goierriko txapelketa egin zituzten. Arrantza Eskolako baimenak Arrese jatetxean eskura daitezke.

Lareoko eta Arriarango urtegietan arrantza aukeran

Beasaingo Aitz-zorrotz elkartean banatzen dira baimenak

Errekarik oparoenetatik arrantzaleak atera eta Lareo eta Arriaran bezalako tokietara bideratu nahi du arrantza Foru Aldundiak. Horretarako, koskortutako amurruak askatzen dituzte urtegietan, arrantza jokorako. Goierrin, Arriarango eta Lareoko urtegiak eta Zaldibiako Arrantza Eskola daude horretarako egokituta. Dena den, arrantza egiteko, baimenak lortu behar dira.

Arriarango eta Lareoko urtegiaren kasuan, Beasaingo Aitz-zorrotz elkartean eskura daitezke baimenak. Arriaranerako, egunean 20 baimen banatzen dira eta Lareorako 15. Martxoaren



11n hasita, hamabostero, asteartetan, baimenen zozketak egingo dira. Arratsal-

deko 6,30etan izena emateko epea irekitzen da eta 7,30etan, zozketa izaten da.

Baimena lortu ahal izateko baldintza bakarra, arrantza baimena edukitzea da.

Hori bai, federatuek, prezioari dagokionean, merkeago izango dute. Federatu helduentzat 4 euro; eta haurrentzat 2 euro. Federatu gabeentzat, oraindik prezioak jartzeko dago, baina 20 euro inguruko kostako da.

Aitz-zorrotz elkartetik adierazi digutenez, arrantza baimen asko egin dira aurtien ere. "Zaletasuna ez da jaitsi, arrantza bera jaitsi da, eta horrekin gogoa ere kendu egiten da", azpimarratu dute.

Zaldibiako Arrantza Eskola

Zaldibiako Arrantza Eskolan ere bada arrantzarako aukera. Eguneko 10 baimen banatuko dira, 5 baimen Zaldibiako Arrese jatetxean eta beste 5 Gipuzkoako arrantza federazioan. Elbarriek beste 4 baimen izango dituzte eskuragarri. Baimenak gehienez, hilabeteko aurrerapenez hartu daitezke. Arrantza ordutegia hau da: goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara.

Baimenak lortzeko prezioak honakoak dira: 14 urtez azpiko federatuek euro bat ordaindu beharko dute; gainerakoek, 4 euro. Federatu gabeek, 20 euro. Beste lurraldeetako federatuek 10 euro.

Hil gabeko arrantza bakarrik egin daiteke bertan. Amu artifizialak bakarrik erabiliko dira. Amuek kako gabeak izan beharko dute. Kuxarila bidez arrantza egitean honek antzuelo bakarrekoa izan beharko du eta kakoa ere kenduta izan beharko du.

Gutziz debekatuta dago urtegiko amurruak errekan askatzea.



ARRIETA

JATETXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Jose Ramon
Eizmendi
Realeko
entrenatzailea

“Helburua bakarra da, Lehenengo Mailara igotzea”

Urte berriarekin batera, lan berria du Jose Ramon Eizmendik: Reala entrenatzea. Bere bizitza aldatu duen lana. Lehenengo mailara igotzeko helburuan, buru belarri ari da lanean 47 urteko beasaindarra. Orain arte, Sanseko

entrenatzailea izan da. Realeko jolaria ere izan zen. Bere bizitzako taldea da Reala. Igandean Xerezi irabazita, laugarren postuan da Reala, hirugarrenarekin, puntuz berdinduta. Gorengo maila gero eta gertuago dute Realak eta Eizmendik.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERCANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Realeko entrenatzaile zarenetik, asko aldatu al zaizu bizitza?

Bai, aldatzen da, baina gustura. Orain arte Beasaingo Suministros Loinazen lan egiten nuen eta orain, ekainera arte, eszedentzia hartu dut. Jendeak gero eta gehiago ezagutzen zaitu, orain prentsan ateratzen zara...

Zer da gogorragoa: 8 ordu lan egin eta entrenatzerara joatea, ala buru belarri entrenatzaile lana betetzea?

Lana egin eta gero entrenatzerara joatea. Gustatzen zaiuzuna egiten duzunean, ez dago aldaparik. Ardura handia da, baina gustura egingdako gauzak ondo eramaten dira. Okerrean izaten da, derrigorrean lan egin behar izatea.

Sansetik Realera, asko aldatzen al dira entrenamenduak?

Horixe baietz. Gauza bat da futbol formazioa eta beste bat futbol profesionala. Futbola erakustea, hobetzea... baina futbol profesionalean emaitzek daukate garrantzia. Emaitzak eta emaitzak. Hortik aurrera tarte txikia dago.

Irabaztea eta gaizki jokatzea hobe, ondo jokatu eta galtzea baino.

Beti esaten dut, hori galdera tranpa delaa. Helburu batzuk daude gu gauden egoeran, lehenengo mailara igotzeko helburua eta emaitzak oso garrantzitsuak dira.



Seguratik Realera

Realean urte asko daramazki Jose Ramon Eizmendik, jokalaria bezala hasi eta entrenatzaile lanean maila guztietan aritu da. Jokalaria bezala, batez ere, pibote postuan jokatzen zuen. Orain arte futboleko egin duen ibilbidearen laburpena egin du Ikaztegiatar beasaindarrak: "Jokalaria bezala, 6-7 urte egin nituen eta entrenatzaile 13-14 urte, maila guztietatik pasata. Bigarren mailan jokatu nuen Realarekin. Lehenengo mailan, Ligako partidu bat jokatu nuen eta Kopako kanporaketa bat, Realak bigarren liga irabazi zuenean. Gero Tenerifera joan nintzen, urte eta erdi egin nituen. Ondoren Oviedora joan nintzen eta bi urte eta erdi egin nituen, Bigarren mailan. Eta gero, Jerezen, lau urte, baita ere Bigarren mailan. Azkenean, lesionatu nintzenean, Beasainen, Suministros Loinazen hasi nintzen lanean eta Beasainen jokatu nuen. Urte hartan, Hirugarren mailatik Bigarren mailara igo genuen taldea. Gero, Seguran hasi nintzen entrenatzen, jokalaria ere han hasi nintzen. Gero Realera joan nintzen".

xetai
nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

“Futbola asko aldatu da”

Futbolean urte asko daramazkizu, asko aldatu al da futbola?

Bai. Lehen garai batean, Ligan, Espainiako jokalaria bakarririk aritzen ziren. Bi atzerritar, gero komunitarioak, gero ezkomunitarioak... Azkenean Liga batean mundu guztiko jokalaria sartzen dira eta gero eta zailagoa dago.

Fisiko eta teknika aldetik ere gauzak asko aldatu dira. Geroz eta azkarragoak dira jokalaria, gero eta abiadura gehiago daukazu, geroz eta indar gehiago...

Komunikabideen jarraipenaren aldetik ere aldatuko ziren gauzak...

Bai, gero eta komunikabide gehiago daude. Marketing-a... futbolaren inguruko gauza guztiak handitzen eta handitzen joan dira.



Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua Karta Sagardotegiko meua
Sagardotegia Jatetxea
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

IBAI ONDO
ARROZTEGIA
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea
Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Emaitzekin eta jokoarekin denok gustura geldituz gero, hobeto, baina puntuak behar ditugu.

Realera egoera zailean iritsi zara: 2. mailan dago, lehenengo mailara igotzeko presioa...

Beti dago presioa, ez baldin bada mailaz igotzeagatik, mailari eusteagatik... Eta bigarren mailan dagoen presioa, igotzea da. Helburua igotzea da eta ez dago besterik.

Momentu ona ala txarra? Ez ona eta ez txarra, momentua da. Momentu hau etorri da, onartu egin behar dugu eta saiatu behar gara helburua betetzen.

Realaren bulegoetan makina bat saltsa izan da. Erraza al da bulegoetako saltsak bereiztea?

Guk igandeko partiduan bakarrik pentsatu behar dugu, beste guztia bereiztu egin behar da. Nahikoa eta gehiegi daukagu zelaiko lanean zentratzearekin, eta ezin dugu beste bidetik joan.

Fitxaketa asko egin dira neguko merkatuan. Gustura fitxaketekin?

Fitxaketak bukatu dira, lotuta daukagu taldea zein izango den. Nik uste dut lasaitasuna etorriko dela eta lana hobeto egingo dugula. Fitxaketek lagunduko diete taldeari, talde hobea izaten.

Jokalari berriak taldean bateratzea erraza al da?

Nik oso talde ona ikusi dut, oso talde elkartua, oso harreman onekin, berriei eskuak zabaldua, berria ere taldeko ohituretara ondo moldatzen... oso harreman polita dago. Momentuan horixe da taldeak daukan gauzarik onenetarikoak.

Harrobiko jokalaria, txiki-txikitatik ezagutzen dituzu.

Batzuk bai. 8-10 bat badaude, nirekin hazitakoak dira. **Abantaila ala desabantaila da hori?**

Nik uste abantaila izango dela. Jokalaria jatorrak bal-

egiten dira gauzak. Horrek ez du esan nahi disziplinarik eduki behar ez denik, bide hori zuzentzeko. Denon artean hitz egin, eta ulertu.

Zaila izaten al da entrenatzaile bat ordezkatea? Realean, Colemanekin gustura zeudela zirudien...

Nik uste dut jokalaria Realarekin identifikatuta dardela. Talde bezala, oso indar ona daukate beraien artean, elkarri asko laguntzen diote, harreman ona daukate... Colemanekin ondo

Ez, esaera bat da hori. Nik ondo lo egiten dut. Niri konfidantza ematen didate eta niretzat ardura bat da taldea niri ematea. Nire bihotzeko taldea da, beti Realekoa izan naiz eta niretzat momentu honetan ardura hori hartzea handia da. Eta esan dudana, ardura handia da eta nik ardura hori bete nahi nuke.

Realeko entrenatzaile izanda, amets bat edo helburu bat bete duzu?

Reala entrenatzea niretzat onena izan da. Ez nuen pentsatzen iritsiko nintzenik. Suministros Loinazen ere lanpostu ona neukan eta lana ere ezin da edonola utzi. Ez nuen ikusten. Fabrikak erraztasun guztiak eman dizkit orain Reala entrenatzeko, eszedentzia eman didate eta saiatu egin naiz.

Orain arte Sanseko entrenatzailea izan zara eta orain beste goierritar baten esku, Iñaki Eskisabalen esku utzi duzu. Esku onetan utzi al duzu?

Horixe baietz. Iñakirekin ondo moldatu gara eta orain berak dauka Sanseren ardura, eta seguru ondo beteko duela bere lana.

Realaren bulegoetako saltsaan, beste bi beasaindar atera dira gaizki: Salva Iriarte, Pako Aiestaran...

Pena ematen du jende bat ez elkartzea bide zuzen baretetik. Baina badakizue nola den futbolaren mundua.

Entrenatzaileak ez du gogorregia izan behar, gauzak ulertzen saiatu behar dugu.

din badira eta harreman ona baldin badago, denak laguntzen du.

Entrenatzaile batek nolako izan behar du: oso zorrotza, disziplina gogorrekoa...

Entrenatzaileak ez du gogorregia izan behar, gauzak ulertzen saiatu behar dugu. Jendea ulertzen denean, askoz ere errendimendu handiagoa izaten da. Denok helburuekin identifikatzen baldin bagara, egindako lanarekin, entrenatzaileak zer nahi duen ulertzen baldin bada... askoz ere hobeto

konpontzen ziren baina nik uste dut garbi daukatela, beraiek talde bezala helburu bat daukatela eta bat egon edo bestea egon, gauzak nahiko garbi daukate.

Helburua, hau da, Lehenengo mailara igotzea ez bada lortzen...

Ikusiko dugu. Ni oso pozik nago eta buruan ez daukat beste gauzarik. Betetzea eta betetzea. Bete ondoren lasai biziko gara, lasai lo egingo dugu. Eta hortik aurrera ez dut pentsatu nahi.

Loa kentzen al dizu Realak?

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ e.a.

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LEIAR **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 7/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

“Futbolera ez da sufritzera joan behar, animatzera eta gozatzera baizik”



Dirua arazo izango ez balitz, zein jokalarari fitxatuko zenuke?

Asko daude. Momentu honetan, nik uste, jokalarari onenatarikoa, Kaká dela. Messi ere bai. Atzetik, Boyan eta Cesc...

Jokalarari bat:

Pele, Cruiff... Niri Brasilgo futbola asko gustatzen zait.

Entrenatzaile bat:

Entrenatzaile asko izan ditut eta bakoitzarengandik asko ikasi dut. Bat esatea, besteak uztea litzateke.

Futbol zelai bat:

Atotxa, eta orain Anoeta.

Atotxatik Anoetara alde handia al dago?

Bai, handia. Atotxan guk jokatu egiten genuen eta beste gauza bat zen, baina ezberdina ikusten da bai. Atotxa bilduagoa zen, beste gauza bat zeukan.

Ikusle askok sufritu egiten omen dute Anoetara joanda.

Sufritzera ez da joan behar, animatzera eta gozatzera baizik. Bizitza bera nahikoa da sufritzeko.

Reala ez den beste talde bat:

Liverpool gustatzen zait... Niri Brasilgo futbola asko gustatzen zait, teknika aldetik... nik uste osoena, Brasilgo futbola dela.

Idolo bat:

Pelé.

Amets bat:

Ametsak asko. Momentu honetan, hartu dudana ardura ondo betetzea eta Lehenengo Mailara igotzeko helburua betetzea.

Euskal kantu batek, 'Euskara salbu ikusi arte ez dut moztuko bizarra'. Zuk zergatik moztuko zenuke bigotea?

Ezergatik ez. Utzi bakean nire bigotea!

Kolore bat:

Urdina.

Ikaztegieta edo Beasain:

Ni Ikaztegieta jaiotakoa naiz. Ama Beasaingoa da eta 11 urterekin Beasaina etorri nintzen bizitzera.

biok kudeaketa
fiskala
zerbitzuak kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

izal 943 187 049
943 187 045
Ondramuño baserria
IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Etorkinekin harremana izateko ohiko esaldien hiztegitxoa

Medikuarenean

G: En el médico

I: At the doctor

F: Chez le médecin

E: La medic

A: inda at tabib

Umeak sukarra dauka

G: El niño/la niña tiene fiebre

I: The boy/girl has a fever

F: Le petit garçon/la petite fille a de la fièvre

E: Baiatul/fata are febra

A: wua'ani tefl/tefla min al homa

Txanda nahi nuke

G: Quisiera vez para el médico

I: I would like a doctor's appointment

F: Je voudrais prendre rendez-vous chez le médecin

E: As dori sa il vad pe dl. doctor

A: uriido ziyarat a'tabib

Noiz hartu beharko du botika?

G: ¿Cuándo tiene que tomar el medicamento?

I: When does he/she have to take the medicine?

F: Quand devez-vous prendre le médicament?

E: Când trebuie sa ia medicamentul?

A: fi ayi wakt yagib an ta'juda ad'dawa'a

Umeak ez du ondo jaten

G: El niño/la niña no come bien

I: The boy/girl does not eat well

F: Le petit garçon/la petite fille ne mange pas bien

E: Baiatul/fata nu mânâncă

A: atefl la ya'akulu kama yagib/ atefla la ta'akulu kama yagib

12etan ezin dut

G: No puedo a las 12

I: I can't at 12

F: Je ne peux pas à 12 heures

E: Nu pot la ora 12

A: laysa bi imkani ala sa'a ta'aniya achra

Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien elkarteak, Gueskek, Goiekiren laguntzaz, Goierriko bizilagun berrientzako baliabide gida prestatu du, hizkuntza ezberdinetan. Goierritar berriekin komunikazioa errazagoa gerta dakigun, hona hemen, Gueskekoek prestatu duen hitztegitxoa.

Laburdurak:

G: gaztelera

I: ingelesa

F: frantsesa

E: errumaniera

A: arabierazko ahokera

Eskolaren inguruan

G: En la escuela

I: At school

F: À l'école

E: La scola

A: fi al madrasa

Zer egin duzu?

G: ¿Qué has hecho?

I: What did you do?

F: Qu'as-tu fait?

E: Ce ai facut?

A: ma'da fa'alt

Zer bazkaldu duzu?

G: ¿Qué has comido?

I: What did you eat?

F: Qu'as-tu mangé?

E: Ce ai mânâncat?

A: m'a da akalt

Gero etorriko naiz bila!

G: Luego vendré a buscarte

I: I will pick you up later

F: Je viendrai te chercher après

E: Vin mai târziu sa te iau

A: sa abhatu ank min ba'd

Eskuak garbitu, meriendatu aurretik!

G: Lávate las manos, antes de merendar

I: Wash your hands, before you have your afternoon snack

F: Lave-toi les mains avant de goûter

E: Spala-te pe mâini înainte sa mânânci

